

## **XEDEA ETA IKUSPEGIA**

Bilboko Ingeniaritza Eskola (BIE) UPV/EHUko ikastegia da, irakaskuntzan eta ikerketan diharduena, eta bere xedea da ingeniartzako profesionalak prestatzeko ezagutzak sortzea eta transmititzea, enpresaren eta zientziaren arloan zein arlo akademikoan ondo lan egiteko behar diren gaitasunak izango dituzten profesionalak, hain zuzen ere.

Horretarako, lankidetzaz estua dauka industria, teknologia eta unibertsitate ingurunearekin, eta graduko, masterreko eta doktoregoko prestakuntza zabala eskaintzen du, ikasleei azken aurrerapen teknologiko eta zientifikoekin harremanetan jartzeko aukera ematen diena.

Eskolak bere gain hartzen du ekonomia, gizarte eta lan ingurunearen garapena bultzatuko duen eragilea izateko konpromisoa, eta kalitatearen, gizarte erantzukizunaren eta kanpora irekitzearen irizpideei jarraikiz jardungo du.

## **BALIOAK**

### **Erakundearen balioak**

Bilboko Ingeniaritza Eskola ezaugarri hauek dituen erakundea da:

- **Ikaslea du ardatz**, eta gaur egungo zein etorkizuneko ikasleen premiak eta itxaropenak ezagutu eta gogobetetzeko ahaleginak egiten ditu, unibertsitatera sartu aurretik eta ikasketak amaitu arte.
- **Nazioartekoa eta dinamikoa**, prest dagoena elkarlanean jarduteko estatuko eta nazioarteko unibertsitateekin eta teknologia, ikerketa eta enpresa erakundeekin, unean uneko eta tokian tokiko egoera edo baldintzetara egokitzeko malgutasunarekin eta gaitasunarekin.
- **Gizartearekiko eta erakundearekiko arduratsua**, garapen jasangarriarekin, gizarte ongizatearekin eta erakundearen ospea hobetzearekin konprometitua.
- **Irekia eta askotarikoa**, aukera berdintasunarekin, aniztasunarekin eta pertsonen diskriminazio ezarekin konprometitua.
- **Eleaniztuna eta euskararen sustapenarekin eta erabilerarekin konprometitua**: atzerriko hizkuntzak ikasi eta erabiltzea bultzatzen du, baita euskararen erabileraren normalizazioa ere.
- **Eraginkorra baliabideen kudeaketan**: emaitza bikainak lortu nahi ditu, eskura dituen baliabide publikoak ahalik eta ondoen erabilita.
- **Parte hartzailea eta elkarrizketarako irekia**: bere intereseko gaiak lantzen dituzten ekimen, proiektu edo taldeetan laguntzeko prest dagoena, baldin eta bere ezagutza, iritzia eta esperientzia eman baditzake, asmo eraikitzailearekin eta adostasuna bilatuz.
- **Berritzailea eta etengabe hobetzeko borondatea duena**: bere jarduera eremu guztietan (irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa) sortzailea eta abangoardista izaten saiatzen da, eta lortutako emaitzak etengabe gainditzen.

### **Pertsonen balioak**

BIE osatzen dugun pertsonak balio hauei jarraituta egiten dugu lan:

- **Konpromisoa eta portaera etikoa**: esleituak ditugun betebeharrak betetzen ditugu, ezarritako arauak errespetatuz.
- **Erantzukizuna**: erabakiak modu kontzientean hartzen ditugu, bai eta horien ondorioak ere geure gain, eta dagokionaren aurrean erantzuten dugu.
- **Emaitzetara eta eraginkortasunera bideratuta aritzen gara**: asmo handiko helburuak ditugu eta horiek lortzeko ahalegin guztia egiten.
- **Profesionaltasuna eta etengabeko prestakuntza**: ahalegintzen gara jardun profesionalean bikaintasunez aritzen eta gaitasunak etengabe hobetzen.
- **Baliabideen erabilera jasangarri eta eraginkorra**: ahalegintzen gara baliabideak jasangarritasunaz eta arduraz erabiltzen, urrezko hiru arauetara jarraituta: murriztu, berrerabili eta birziklatu.

- **Talde lana:** beste pertsona batzuekiko lankidetzeta, elkarrekiko laguntza eta sinergiak bilatzen ditugu, alde guztien intereseko helburuak lortzeko.
- **Genero berdintasuna:** emakumeak eta gizonak baldintza, aukera eta tratamendu berberak izan behar dituztela defendatzen dugu, eta uko egiten diogu bi sexuen arteko bereizkeriari.
- **Ospe handiko erakunde bateko kide izatearen kontzientzia eta harrotasuna,** zeinari errespeturik handiena zor diogun eta egunez egun hobetu behar dugun.